

Kataluñarrak aurretik: 700 liburu berri urtean!

M. eta A. Bensoussan'ek berriki argitara duten artikuluaren diotenez, katalaneraz 700 liburu agertzen dira urtean.

Zenbat guk? Euskaldunok gutxiago gera, gure hizkuntza ez da erderaren aldekoa, oraintsu arte gure intelektualak zapuztu agertu zaizkio euskerari, eta abar. Ba dakiti. Baiña horiek dira egina.

Kataluñarrak zapiruhun liburu urtean. Eta, guk? Hogei ote urtean? Hogei eta hamar? Egia norbaitek jakinarazteko osasungarri litzaiguke.

Nola jokatu dute gure kideek? Bi ekintza-mailatan.

Alde batetik, kanpotar idazlerik famatuena katalaneraz ezagutaraztekoan saiatzen dira; eta hau gaztelaz baino lehenago eskotan. Bide huntatik ari, eta filosofiaren saillean, Marx, Freud, B. Russell, Gramsci, Lucaks, Goldmann, Mounier, Teilhard de Chardin, Simone de Beauvoir, eta Berbert Marcuse bere katalaneraz irakur ditezke gaur. Literaturaren saillean, berriz, ondoko hauek dira agertu berriak katalaneraz: Brecht, Pavese, Butor, Scott Fitzgerald, Günter Grass, Solpentsinis, Pratalini, Mac Cullers, Truman Capote, Alan Sillitoe, Marguerite Duras; eta, klasikoagoen artean, Dostoyevsky, Chejov, Kafka, Faulkner, Hemingway, Dos Passos, Sartre eta Camus.

Nun gero guk? Beste aldetik, bertako idazleak ezagutarazten dira. Antziñako jatorriko liburuak argitaratu berriak dira: Raimund Lull'i 'engandik hasi, eta Oller, Rusiñol eta Maragall'engansino. Gaurko idazleen lana anitz literatura-sairen bidez zabaltzen da, eta Kataluñako gazteria jo-ta-ke ari da idaz-lanean. Hau dala-ta, itzulpenez gain, bizi-bizi dator jatorriko literaturaren pizkundea, bai saiakeran, bai teatroan, bai olerkigintzan.

Nola ez txundituko gu, horrelako esnaera indartsu baten sendotasuna ikusita? Nola ez aitortuko, zorritzarrez, euskaldunok urrun, oso urrun, urrunegi, gaudela oraindik horrelako helburuetatik? Nola ez odola irakiten jarriko?

Gure arteko batzuk euskera beharrezkoa ote dan galdetzen duten bitartean, kataluñarrak lanegin egiten dute katalaneraz. Gure arteko sasi-marxista batzuk euskera eta Marx ongi ezkon ote ditezkean zalantzan jartzen dutelarik, kataluñar marxistek Marx, Gramsci eta Marcuse argitaratzen dituzte katalaneraz. Gure artean literatura-hizkuntza bakar baten beharraz ihardukitzen dugun bitartean, kataluñarrak katalanera bakar batez argitaratzen dute munduko literatura. Eta guk, azkenik, erderaz euskeraren gorabeherak aztertzen ditugularik, kataluñarrak katalaneraz mintzo dira familia eta Barcelona'ko erdian, lagunen artean eta politikakzoko bilkuretan, kanpotarren aurrean eta atzean, katalanera atsegin gertatu ala gaitzi, entzulea bertakoa izan ala ez izan. Hein batean bederen, horra hor pizkunde harrigarri horren kakoa!

Ba da garaia, hortaz, gure inoixerietatik eta txatxukerietatik irten gaitzen, eta aurrera ausarki jo dezagun.

Lehenengo pausua, noski, literatura-euskera bakar bat lortzea da. Er-mua'ko billera laguntzaile izan dedilla, eta Onati'koa erabakitzaile. Tresna zailtu bat behar dugu. Esna gaitzen.

Bigarren pausua: euskaltzale guziok, ongi alkar-aditurik, lanera, lanera eta lanera. Gure hizkuntza hobe ikasiaz, batetik; gure luma usuaqo eta hobeki erabiliaz bestetik. Ehun liburu urtean, esate baterako: horra hor muga egoki bat orainoz.

Eta, kataluñarrak bezela, bi mailatan ekin dezagun. Euskaltzale sail haundi bat itzulpen-lanetan has dedilla: Levi Strauss, Sartre, Freud, Russell, Mounier, Teilhard, Camus, Mauriac, Malraux, Hemingway, Steinbeck, Sol-jenitsine, euskeraz argitara ditzagun ahalik eta laisterrenik. Beste euskaltzale sail bat, berriz, sortze-lanetan karraskan ari izan dedilla: antzerki, olerki, nobela, kondaira, irakaskintza-liburuetan.

Eta dena aholkulari eta gidari Euskaltzaindia.

Kataluñako jarraipidea lanetan dugularik: gaurdanixek, aurrera!

L I B U R U A K

Urte asko da ondo zekien bati entzun niola, Ramon de Basterra, Bizkaiko erkarki ospetsu eta idazle tre-beari gertatzen omen zitzaion. Liburu bat bukatzen zuan bakoitzean Santagedara gaixorik joaten omen zan. Zainkaraz burua gaiduta.

Saso'i artako Santagedako sendagille pamatu zan Ambarro jaunak itz berdinakin beti agur egite omen zion aldi bakoitzean. Besterik ez omen zion esaten: —Emen zera berriro. Zer liburu berri bukatu dezuz oraingo onetan?

Ambarro jaunaren galdera, alde batetik edo beste-tik, era batera edo bestera izutzeria beartuta daude liburu egilleak.

—Ezin deskantsaturik zaude. Bat bukatu orduko bestea asten dezuz. Orrela nola sendatuko zera ba? Zeure buruei ez al-diogu beñere pakerik eman bear?

Egi-egia. Liburu egille idazleak beñere ez dauka pakerik. Biotza beti irakiten.

Liburu bakoitza biotz eta ezur mami-mamituk sortzen bait zaio. Liburu berri bakoitzak biotza urratu eta bere bizitzaren sustraiak desegintzen dizkiola esango litzake. Ori da bere kurtzea.

Liburu egillearen lan da lana, ilka jardunean bearr! Bere kopetan idazle izateko marka bereziakin jaiotakoak ez ezagutuko atsendenik bizi dan artian.

Gauaz, lotan dogola ere, espiritua lanean ari zaio eten gabe. Zenbat aldez ez ote du ensatzen, egun-argiz, askatu eziñeko, bat batean ziara argitu zaion matasa korapilooak? Ain xuxen eta garbi gañera.

Beti berekiko ari da idazlea. Korde gabetuta dabi-

llela esango litzake. Famliko zaratak ere ez du esnatzen bere lo-zorrotik:

—Gizonal? Mututu egin alzera? Danok ixillik bear al-degu zu ixillik zaudelako?

Barrengo oiua entzuten ari da. Berak bakarrik ixillan entzun lezakena. Susmur berezi ori etzaiozuleta galerazi.

Beste aldetik, zenbait tokitan beintzat, nai lukena esaterik zbai aldauka? Ganzak sakonera irixtean? nola esan? Eragozpenik ez izateko? nola bear du? Alako orrialdean idaztera asartzen dana gurettikoko al-diote? Ezin esan nolako buruaustek liburu egillearenak. Liburu asten duanetik bukatu arte, eta ukabera eman ondoren, danontzat esku-liburu egin arteñoa zenbat eta zenbat pentatu ezin añaoko ardura ta buruauste?

Orra or aizenik bere liburua jendearen eskutan. Baimen danak kontsegiu ditu. Lan maila paperez arin-du du. Lasaitu al-da? Bai zera!

Izkutatu duan karpeta zarrak laister egingo dio toki karpeta erosi berriari.

Beste urte beteko, edo urte terdi, edo bi edo iru urteko lanari asiera eman dio. Berriz ere entzun bearko du irri parrezoko matekor purrustada:

—Baiño, gizonal? Mututu egin alzera? Beti orrela bear al-degu? Nun zaude? Nik asmau nuen, bai, zurekin ezkontul...

Jose de Arteche

Herbert Marcuse' ren ideia batzuk

Gero eta maizago aipatzen dira Markuse' ren ideiak. Europa'ko Unibertsidadeetan izan diran gertaerak diralata, Marcuse'k aldez aurretik iragarri zituela esan zaigu. Zer dio, beraz, amerikartutako aleman filosofo hunek?

«Marxista-berri» tzat daukate gehienek Marcuse. Baiña marxismoaren iriziti funtsezko batzuk onartzen ez dituen ezkerre, ez dakit nik «marxista» izena egoki datorlionik. Gaurza bera esan genazake, jakina. Sartre'z, Gorge'z, Goldmann'ez, Havermann'ez, eta beste erdi-marxista ezagun anitez.

Marcuse'k, hau bai, Kondairazko Materialismoa sinistean du; alegia, bere ustez, Kondaira ez dute ideiek mogitzen eta aurreraratzen, produzio-moduek eta tekniken eboluzioak baizik. Hunegatik, hain zuzen (tutomazioa, esate baterako, Marx' en garaiean, ez zegoelako),

aren sistema, eta huni dagozkion eragabekeriak, hortxe daude, bai, tinto; eta sozialdede guzia dago helburutik bazterturik. Dirutu-nahia da gidari, eta legeak ez du gauza haundirik egiten bestela izan dedin. Itxuraz, ordea, ez da hala; eta langilleria «txekotuz» egin da «kapitalismo-berrian», egokitu egin da, «integratu»; eta ez du errezoluzioa nahi, sozialdede hortan parte haundirik bat baizik. Europa'ko komunista-alderdiak, eta «Frantzia'koa eta Italia'koa batez ere», sozial-demokrazian barrera abiatu dira ezinbestean Marcuse' ren ustez; eta ez dute errezoluzioa ez nahi eta ez egingo. Hildo beretik Maurice Duverger'ek ere, langilleria oiñarriz hartzen duen sozialista alderdia «eskuindartu» egingo dala zion berririk!

Maiatzako gertaerak arrazoin eman diete; eta horregatik aipatu da askotan Marcuse' ren izena. Hunen ustez, industria aurreratuta duten herrietan langilleria ez da errezoluzio-zalea; eta sozialismoa bestetatik etorriko da. Marxista azalpen bat ematen dio Marcuse'k huni; baiña, egia esateko, marxismo-leninismo ofizialek oso urrun agertzen zaigu.

ERRUSIN, SINDIKATOAK ZER?

Kemena ta indarra sortu zuan bai slogan onek: «bakoitzari bear duana eman bear zaio». Berak sortutako slogan onek ezzer gutxi esan nai du gaur erri-sozialisten buruzagientzat. Gaur, beste auxe darabilkite: «Bakoitzari bere lanaren neurrian».

Errusi eta bere sateliteetako agintariak slogan zar ura kaltegarritzat jotzen dute sozialismoarentzat gaur. Ez omen du produkzioa ugartzen, eta produkzioa sakratua bai-da gizona produkzioarentzat danean eta ez produkzioa gizonarentzat.


Asko itzegiten da komunista ekonomizale artean slogan auetzaz. Eztabaida gogorarik darabiltzite. Eta eztabaida onetan bat ondarrezkoa ematen ba-dizute bestea karezkoa. Sobietiko agintariak ereji bat bezela kondena-tzen dute orain «ikualitarismoa», eta beste aldetik, erria loxintxatu naiean, arro azaltzen dira orain-aixtin lan-sariak berdinamartu dituztelako.

Illean 80 rublo igote dute lan-sari minimoa. Eta eunenik 80 berrataru da lan-sari guzieren erdian. Onekin agirian dago ez daukela batetsu agintariak igoiztasimari ezartzen dizekieten eztenkadaz, eta sari aldaketa auk.

Onetzaz Novotny'k P. C. txekotarren idazkariak kondentatu egin du Praga'n lan-sarien igoiztasimooa, ontan irabazi gaio bai-dute espezializatu gabeak espezializatuak baiño.

Guzi ontatik iru gauz agertzen dira nabarmenki. Lenengoa, arrazoi zutela Stalin garaiean lan-sari diferentzi ikaragarriak zirala esaten zutenak. Orduko eta oraingo egunak ez dirala berdinak langillaearentzat, bigarrene agerkaia. Langille kalifikatua ugartitzen joan da, eta orduko legeak ez dute balio gaurko.

SIGMA



Kontuartauek gaude aspaldi Erikko ta erbesteko, Oso itxua bear du batek Au ondo ez ikusteko.

Ezkon-berriak bear dutena Bizimoduan asteko, Etxe-bizitza egokia ta «Sigma» makina josteko.

Elgoibar

Eta irugarren, sobietiko nagusien erasoak igoiztasimooari ikusirik, asmatzen ari diran erreforman nagusi irtego dirala diferentziak geisgotzea nai duten teorikoak. Begiratu batera ez dirudi onela, baiñan ipifin nai duten xixtama berrian lan-sarien kontrola gobernanzailleen esku egingo da, baiñan faktori bateko zuzendariak izango ez ba-du ere sari-baseak mugitzeo eskubide, izango du ordea nai aña esku benefizioak banatzeko, eta bere gogora. Itz batean influentzia izango duela bere langilleen irabazi eta extraordinariak nai dituan neurrian eta nai duanari emateko. Emendik irtego da, noski, lantoki bateko langilleen artean lan-sarien diferentziak, eta lantoki batekoak beste lantoki batekoekin ere. «Pelotariak» ugartituko dira eta direktorearen txoakan «dejadak» egiten dakitenak tanto geiago atarako dituzte bere bizimafia jokoa.

Erreforma-jokabide onek aide berriak ekarriko ditu Errusi'ra. Bi slogan auen teorioak ez dira bakarrik Errusi'n. Auek ez bai-dira erriaren abotsa besterik. Eta erriak bizimafia oheagoa eskatzen du. Ez du nai estadu aberats batean txiro bizi. Artu-emanak asko erakutsi dio. Langille errusitarrek, okzidenteko langillea bezin ondo bizi nai du. Eta Estadua nagusi latza dan tokian ezzer gutxi dauka egiaerik. Antikonformista irretzen ba-da, Siberia'ra bidaliko dute. Pakean bizi nai ba-du guziari amen egin bearko dio. Agintarien oraingo «nai det» eta «ez det nai» jokoan begira egoterik besterik ez du. Estadua nagusi latza bai-da, nai Sindikato bat itxurarako sortu. Danak dakigu ondo zer diran Sindikatoak estadu totalitarioetan, komunista izena ba-darama ere.

Zer egingo du bada orain Sindikatoak Errusi'n? Egiz jokatu al lezake bere aitaren kontra? Sindikatoen pluralismoa ontzat emango al dute? Langilleen kompetentzia bezela Sindikatoen kompetentzia onartuko al dute?

Transmisio korrea bat da totalismoarentzat Sindikatoa. Ez dio lagako bere elburua lortzen. E zda Sindikato baten eginkizuna sozial-asistentzia bere esku edukitzea, edo Ministerio baten murrerri itxua izatea.

Len ere URSS' en eta Komunisten Batzar Nagusi batean, 1921 gn. urtean, sindikatoari buruz iru jokabide azaldu ziran. Jokabide batek industriari kontrol guzia sindikatoaren eskuetan lagatzea zan. Baiñan Sindikatoa Estaduaeren borroi bear zuala ziotenak garailae irten ziran.

Sindikatoak bear-bearrezkoak dira nagusi-estadu edo nagusi-kapitalisten gelegikeriei aurre emateko. Agintaria, bakarrik agintzen duanean demokrazirik gabe, jainkotu egiten da. Norbaitek arpegi eman bear dio bide zuzenetik joan dedin.

Orregatik, Union Sobietika'ko milloika langilleekin batera, galdera auxe egiten degu:

Anunziazten duten erreforma ortan zer eskubide eta zer jokabide izango du errusitar sindikatoak?

Eta ara nundik sendotzen geran gure ideian. Alegia, nagusi-estaduak ez dituztela naiko bere errietan antikonformisten sindikato libreak.

aren sistema, eta huni dagozkion eragabekeriak, hortxe daude, bai, tinto; eta sozialdede guzia dago helburutik bazterturik. Dirutu-nahia da gidari, eta legeak ez du gauza haundirik egiten bestela izan dedin. Itxuraz, ordea, ez da hala; eta langilleria «txekotuz» egin da «kapitalismo-berrian», egokitu egin da, «integratu»; eta ez du errezoluzioa nahi, sozialdede hortan parte haundirik bat baizik. Europa'ko komunista-alderdiak, eta «Frantzia'koa eta Italia'koa batez ere», sozial-demokrazian barrera abiatu dira ezinbestean Marcuse' ren ustez; eta ez dute errezoluzioa ez nahi eta ez egingo. Hildo beretik Maurice Duverger'ek ere, langilleria oiñarriz hartzen duen sozialista alderdia «eskuindartu» egingo dala zion berririk!

Maiatzako gertaerak arrazoin eman diete; eta horregatik aipatu da askotan Marcuse' ren izena. Hunen ustez, industria aurreratuta duten herrietan langilleria ez da errezoluzio-zalea; eta sozialismoa bestetatik etorriko da. Marxista azalpen bat ematen dio Marcuse'k huni; baiña, egia esateko, marxismo-leninismo ofizialek oso urrun agertzen zaigu.

Bi indar, bi giza-sail, bi gizarte-talde ikusi uste ditu Marcuse'k (langabeak berez utzirik), neo-kapitalismoaren giroan ukatzaile eta ukatutako, eta errezoluzio-iturri beraz: inaelektualak eta etniak.

Marcuse' ren hitz berberak aipatuko (ikus «Le Socialisme dans la Société Industrielle», Rev. Int. du Soc., 8 gn. zenbakian): «Il ne faut en aucune manière sous-estimer le rôle des intellectuels... On ne peut plus si facilement négliger le rôle des intellectuels aujourd'hui que ne l'a fait le marxisme dans le passé». Ezagutu ditugun gertaerak guztiz gertatu dira Marcuse' ren iriziti horren arabera. Intelektualak izan ditezke gaur sozialismorako bidean indar nagusi bat.

Ethniei buruz, berriz, Marcuse'k ez du uste «gaur-haurko» sozialismoaren oiñari bat gerta ditezkean, eginkizuna garbi ikusten ez dutelako; baiña kapitalismo-berriaren sistematan egokitu edo integratu ez diran ezkerre, zapalduetako etniak eta arrazak izan ditezke sozialismoaren eragilae: «minorités raciales et nationales» dio Marcuse'k.

Sozialismorako bidean, beraz, in-telektualak eta etniak somatzen ditu Marcuse'k eragille; eta gero eta konfiantza txikiagoa bide du komunista alderdiaren eta langilleria bertan.

Aurtengo gertaerak ikusita, gurean eta atzerrian, nola ez Marcuse' ren esanak aipatuko? Berriz ere aztertuko ditugu bere ideiak.

Gure arteko eskolastiko harrigarri batzuk, ordea, abituza gaifean ez guxtuzin, hor ari dira jo-ta-ke, iñork sinistzen ez dituen lelo zahar eta hitsak bazter guzietan erin nahiz... Alperrik ari ere!

•UXOLA•

LARRESORO